

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea zenbait kreditu gehigarriren espedientei**

Udalbatzak 2019ko uztailaren 18ko ohiko osoko bilkuran erabaki zuen hasierako onespena ematea 1/2019 kreditu gaitzearen espedienteari eta 2/2019 kreditu gehigarriaren espedienteari eta 2/2019 kreditu gaitzearen espedienteari eta 3/2019 kreditu gehigarriaren espedienteari.

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera; epe horretan, interesdunek aukera izango dute espediente aztertzeko eta Udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dira kreditu gehigarrien espedienteak.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Izarra, 2019ko uztailaren 22a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA*